

CARLOS I.REN INGURUAN EGIN BEHARREKO BILERARI BURUZKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Carlos I.ren inguruko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko ekainaren 19ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 24an, Udalbatzak honako kontrol mozio hau, Donostiako EH Bildu udal taldeak aurkeztutakoa, onartu zuen aho batez: "Udal Gobernuak Carlos I.go auzotarrekin bilera irekia egin dezala, auzoan bertan, inguru honen etorkizuneko proiektuak eta bide horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera emandako urratsak konpartitzeko".

Orain arte, onartutakoa ez da aurrera eraman eta auzokideen kezka eta zalantza areagotzen ari dira. Haien hitzetan, aurreko Foru Aldundiak, Bilduren gobernuak, hobekuntza bukatu zuenetik, Udalak ezer gutxi egin du ingurunea hobetzeko. Udalera bidalitako idatzietan, txukuntze lanetan, lorezaintzan, irisgarritasunean eta beste arlo batzuetan pausorik ez eman izana iruzurtzat jotzen dute. Horrez gain, ez dute inongo informaziorik Donostiako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egiten ari den bidez. Ildo honetatik, alkateari idatziz eskatu diote Udalbatzak onartutako bilera lehenbailehen egin dezala.

Udal Gobernuak, batzordean, eremurako proiektu bat diseinatzen ari dela esan zuen eta landuta duenean auzotarrekin partekatuko dutela. Agintaldi erdia joan da, ordea, mozioa onartu zenetik hiru hilabete, eta hala ere, auzotarrek ez dakite ezertxo ere PNV eta PSOEn asmoz.

Gogorarazi behar da, bestalde, gaur egungo Udal Gobernuak bertan behera utzi zuela, 2016an, eremu honetan hobekuntzak egiteko aurrekoak onartutako 147.204 euroko partida.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete dezala martxoan onartutako mozioa eta aurtengo udaratik bueltan, irailean edo, beranduenez, urrian egin dezala bilera irekia Carlos I.go auzotarrekin, auzoan bertan, inguru honen etorkizuneko proiektuak eta bide horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera orain arte emandako urratsak konpartitzeko.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia